

Carlos Landi: Tolosaldeko oroi-girotan

Lerro hauek idazterakoan konturatzen naiz, bai, zer esan gutxi daukadan esparru batean ari naizela sartzan; baina lerroon helburua Tolosako pintore-kartelgile ospetsu bat denez, herkidetasuna lege da.

Aipatu artista horren jaiotzako ziurtagiriak honela dio:

Tolosako herrian arratsaldeko hiruretan, mila zortziehun eta laurogeita hama-seiko maiatzaren hirugarren egunean (...) izenez inskribatu zen erregistro zibil honetan haur bat, eta horri buruz aitortzen dut:

Jaiotzez Italiako Firentzako eta industrialari den Migel Landi eta Merli Jn.aren eta Gipuzkoako probintziako Billabonakoa den Juana Sorondo eta Jaimeren seme legitimoa dela (...).

Eta delako haur horri Carlos Silvestre jarri zaiola izena.

Alde batera utziz era bateko ala besteko arrazoiengatik gure herria bisitatu zuten artisten lan guztiak, Tolosako herri honetan jaiotako edo berarekin identifikatutako eta orain gogoratzen eta ezagutzen dudanez beren lanak utzi zizkigutenak bakarrik aipatuko ditut. Hortxe dauzkagu Antonio M^a Lekuona, Alejandrino Irureta, Ansola, Rogelio Gordon, Tolosan bizi izan zena, eta hain ahaztuta daukagun Pantaleon Jusué bera; Carlos Landiren sasoi eta garai berekoak ditugunen artean, berriz: Vicente Cobreros Uranga (1898) eta David Alvarez (1900).

Jusué abizena ez zen batere arrotza gertatuko XIX. mendeko Tolosaren kultur bizitzan. Fermin Jusué Iruñeakoa zen eta Tolosan hil zen 1843. urtean. Lehen letretako irakaslea izan zen Tolosan. Bere seme Pantaleon Eibarren jaio zen 1832ko uztailaren 27an; ordea bere bizitza osoa, marrazkiaren eta pinturaren irakaskuntzan emandako bizitza osoa, Gipuzkoako lehengo hiriburu zaharrean eman zuen, eta herri honetantxe bukatu zituen bere egunak ere, 1906. urtearen lehenengo egunetan.

Pantaleon Jusué artista handia izan zen, bere oihaletan historia egiten duten txoko amets-girokoak jasotzen hain ondo asmatu zuen artista, nahiz eta,

zabarkeriaren zabarkeriaz pintura aberats hori ia erabat desagertua daukagunez, gaur ez zaizkigun kopia gutxi batzuk besterik geratzen.

Litekeena da Carlos Landik umetan Jusué-ren marrazkigintzako irakaskizunak ezagutu izatea, eta litekeena da, gainera, diziplina horren barruan Santiago Caballerok eta Federiko Guevarak, beste batzuen artean, ematen zituzten klaseetan ibili izatea ere. Caballero Arte eta Ofizioetako Eskolan izan zen irakasle 1907. urtean, eta lau urte beranduago F. Guevara izendatu zuten marrazketa-irakasle Tolosako herrian.

Vicente Cobrerok Uranga, Ansolaren ahaidekoa bera, katedradun bihotzbera bezala ezagutu nuen Donostiako Komertzio Eskolan, eta arte-kritikari bezala ere bai berez hain tolosarra den *Arramele* goitizena hartuz. Vicente Cobrerok Urangak egindako eta «Donostia (hirian barrena). Agustin Ansaren marrazkiak» izeneko liburuan azaltzen diren iruzkinak horien inguruan honela dio Fausto Arozenak:

Marrazki zehatz eta zorrotz horien ondoan bera ere pintorea den V. Cobrerok Urangaren iruzkinak azaltzen dira. Cobrerok Uranga literato fin-fina dugu, bere luma eder hori gehiago haizutzen saiatu beharko lukeena¹.

David Alvarez 1900. urtean jaio zen, arestian esan bezala, baina ez zen Tolosan bertan jaio, Madrilen baizik, eta halaxe ikus daiteke artistak berak sinatutako eskabide honetan azaltzen denez:

Izenpetzen duenak, David Alvarez jaunak, hogeita bat urteko adinekoa, Gipuzkoako Foru-Aldundi Txit Goren horrek antolatutako Gipuzkoako pintoreen lehiaketan parte hartu nahirik, Epaimahai horren aurrean azaltzen du:

Izenpetzailearen jaioterria Madril dela, sei hilabeterekin Tolosara etorri zela eta herri honetan bizi izan dela ondorengo hogeitazero urte t'erdian hauetan, herri horretako Alkate Jaunaren ziurtagiri bidez frogatzen dezakeenez, hala behar izanez gero.

Hain zuzen ere, Probintzia honetatik sekula ez atera izanak eragin dio hurrengo lehiaketa horretan aurkeztu nahi dituen koadroen estiloa euskal kutsu peto-petokoa izatea (...)

Eskatzen dio, beraz, Epaimahai horri, bere oniritzia eman diezaiola izenpetzaileak ustez delako lehiaketa horretan parte hartzeko duen eskubide horri.

Donostian, 1921eko irailaren 15ean. David Alvarez (sinatua). (Eskuz idatzitako ohar bat ere badago, honela dioena: «Talleres gráficos de Federico Alvarez, en Ondarreta»).

Gipuzkoako Pintoreen Lehiaketako kalifikatzaile izango den Epaimahaiko Lehendakari Jaunari. Donostia².

1. *Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko Aldizkaria* VI. Urtea 3. koad.

2. Gipuzkoako Artxibo Nagusia JD-JTF 1508/2864.

D. Alvarezek egindako erakusketaren berri izaera ofizialarekin berresten du honako dokumentu honek:

Ramon Bandres Jn., Tolosako herri honetako Udal Txit Goreneko Idazkari Abokatuak.

Ziurtatzen dut: bere arrazoiaren aurrerakinetan azaltzen denez, David Alvarez Flores Jn., Madrilen jaiotakoa eta 25 urte dituen, herri honetan bizi dela orain dela hogeita lau urte t'erditik hona, eta bere oraingo helbidea Gorosabel kalea, 18-3 zk. dela.

Eta hala azal dadin luzatzen dut honako ziurtagiri hau Alkate Jn.ak bisatuta, Tolosan, mila bederatzehun eta hogeita seiko irailaren hamarrean. Ramon Bandres (sinatua). Oniritzia Alkateak: Nicasio Lasquibar (sinatua)³.

David Alvarez, hain garaiz baino lehen eta hain tragikoki joan zitzaiguna, pintore handia izan zen eta beste hainbat argitalpenen ilustratzailea gainera, tesluliburu, etab. eta bere herriorde honetako gertakizunak bertabertatik bizi izan zituena.

Tolosa en fiestas aldizkarian, 1926. urtekoan, *Bolas* izeneko batek, hori baitzen Jose Alberto Labadiaren izenordea, D. Alvarez buruz ari dela esaten du:

Bizitzeko lanbide zuen marrazketa industrialetik hasi eta gaur egun erakusten dituen oleozko bodegoi eta erretratu horietaraino, tartean tipo eta giro euskaldun garbiko akuarela guztiak hartuz, guzti horietan ikusten zaio paregabeko kemen baten ondoan garaile izateko afana ere bazuela, helmugara iristeko asmo garbi-garbia, eta gauza horiek Tolosako artista honen nortasunari ukitu guztiz interesgarria eransten diote.

Bi urte geroago aldizkari horrek berak D. Alvarezen azala erakusten zuen, eta barruko orrietan delako Labadia horrek artikulua bat eskaintzen zion, aipamen hau eginez: «tinbre ospetsuz jantzitako artistak, hala nola Arrue, Cabanas Oteiza eta Landi». 1928ko argitalpen horretan Carlos Landiren pintura bat azaltzen da Tolosako txoko bat izenekoa, eta L. de Ayambe-ren iruzkin honek laguntzen dio:

Tolosako estampa da, bere Nafarroako zubiarekin: harrizko zubia, zubi sendoa, zubi zahar makurtua. Ogi oparo eta mama gozoko lur Nafarroakoetara joateko bide irekia: horiek baitziren Gipuzkoako hornizio gutiziatu eta eskasenetako batzuk. Baina eta, aldi berean, gotorleku den zubi, bere bost begiekin zelatari jarririk; pozez ere zoraturik ibili izan dena (...) gainetik ikusi duenean Beotibarko 'bordon-dantzarien' segizio garailea zetorkiola, eta, aldiz, odol-malkoak ere isuri dituen anaiarteko gerrate gorrien aitzinean.

Bere oinetan Oria ibaia, haserre eta arre inoiz, gaur bare eta berdaitz zubi-gangen azpi horretan atseginezko baragune bilakatu.

Idiakeztarren jauregi martzala jasotzen du bere uren ispluan, Tolosako aiton-semeen bizileku izan dena beti, traza pizkundetarreko adreilu higatuak altxatzen dituen oraindik kanal veneziar baten gainean baillitzan.

3. Ibidem.

Atzekaldean Plaza Zaharra antzematen zaio, bere Kontzejuaren presentzia hiritarra ikusten utziz, garai batean Tolosaldeko herri ugarien gainetik subirano izan zen kontzeju hori.

Aranburu orubea, herriko jendeak 'Kondiana' izenez ezagutzen duena, Zabalarraren sendi ospetsuaren jauretze izan dena, hori ere hor azaltzen zaigu bere hegoaldeko fatxada erakutsiz, eguzkiaren eta ibaiaren losintxetan. Guztien gainetik Santa Maria altxatzen da, katedrale-molko kementsu eta ezpataina lerdinarekin, herri martzal, leial eta ausart honetako parrokia bakar izatearen pribilegioa harro zaintzen.

Betiko Tolosa ahaztezinaren estampa dugu noski.

Dekorazio-arteetan egindako lan garrantzitsuak ahaztu gabe, Carlos Landi kartel-pintorea ere badela esan behar da, proiektio joriko lanen egilea, guztion aitortpena jasotako eta behar bezala baloratutako obra baten jabea. Aipamen partikular bezala eta guri sortzen digun atsegina azalduz, txik egokia iruditzen zait esatea ezen nik egindako bi liburuetan ere azaltzen direla Carlos Landiren ilustrazio zoragarriak, nire esku jarri baitzituen bere iloba den Juan Antonio Garmendia Elosegik.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak 1978an argitaratutako *La pintura vasca contemporánea. Gaur eguneko euskal pintura. 1935/1978* liburuan, Juan Maria Alvarez Emparanza lagun zaharrak honela dio:

Gure lur honetako arte plastikoa maila duin batean eusten jakin izan zuten garai hartako figura nabarmenen artean aipatzekoak dira Jesus Olasagasti, Julian Tellaetxe, Jose Maria Uzelai, Juan Aranoa, Ricardo Baroja, Asensio Martiarena, Jenaro Urrutia, Pedro Muñoz Condado, Enrike Renteria, Angel Garabilla, Ciriako Parraga, Juan Bay-Sala, Angel Cabanas Oteiza, Jesus Basiano, Jabier Ciga, Carlos Landi, etab. etab.

Gipuzkoako Artista Berrien Lehiaketetan ere, aurrerago ikusiko den bezala, behin baino gehiagotan izan zen saritua Carlos Landi Sorondo gurea. Lehiaketa horiek ondorengo azalpen honen ondorioz sortu zirela esan behar da:

Gipuzkoako Aldundi Txit Gorenari

Jaun agurgarria:

1917ko abenduaren 27ko eguneko zure erabakiz kendu ondoren Gipuzkoako artistei pintura eta eskulturako ikasketak egiteko ematen zitzaizkien bekak, erabaki zen aurrerakoan Arte Ederretako erakusketak egingo zirela, eta erakusketa horiek Gipuzkoako artista guztientzat irekita egongo zirela, pentsatzen baita lehiaketa horiek pizgarri izango direla artistentzat eta berauetan aurkituko dutela beren lanaren aitortpena, jasotzen dituzten sariengatik alde batetik, baina baita horrek ematen dien arrazoizko ospearengatik ere, eta jendeak ematen dien estimuarengatik ikusten duenean haien sinadura azaltzen dela hain meritu handiko lanen beheko aldean.

Asmo horrekin erabaki zen probintziako aurrekontutan urtero zazpi mila pezeta-kopurua izendatzea delako lehiaketa horiek ospatzeko eta, bestalde, hiri honetako (Donostiako) Udal txit gorenaren laguntza ere eskatzea.

Behean sinatzen duen Sustapen-Batzorde honek, zure eskutik lan horren ardura bere gain hartu zuelarik (...), eta honek eskatzen duen garrantzi guztia ezin izango diola eskaini ikusirik, ausartzen da, hala ere, Arte Ederretako Erakusketa bat ospa dadin eskatzera, Gipuzkoako artista guztientzat irekita egongo dena eta oleo, akua-rela, marrazki, akuaforre, etab. eta, berebat, eskulturako lanak ere onartuko dituen bere forma desberdinetan, lehiaketa horren epea datorren urriaren 15ean irekitzeko eta onartzen diren obrak Jauregi Probintzialeko aretoetan aurkezteko eskatuz.

Ondorio horietarako Epaimahai bat osatuko da, hiru teknikari eta lau Diputatu hartuz (...).

Probintziako Jauregian, 1920ko irailaren 10ean.

Jose Joaquin Aztiria (sinatua); Gerardo Arrillaga (sinatua); Antonio Aguirre (sinatua). Ziguila bat esaldi honekin: Gipuzkoako Aldundia. 1920ko urriaren 6ko batzarraldia. Onetsia⁴.

Eskatutakoren arabera, 1920an egin zen Artista Berrien Pintura eta Eskulturako Erakusketa, eta Carlos Landik saria irabazi zuen, ondorengo 1921, 1922, 1923 eta 1925eko urteetan bezala, eta hemen nire esku daukadan dokumentazio hori erabiliko dut besterik gabe.

1925eko Erakusketako katalogoan azaltzen denez, Carlos Landik hamar obra aurkeztu zituen, honako titulu hauekin izendatuz: *Bodegoi estudioa* (4); *Erretratu-estudioak* (2); *Estudioa* (2); *Donostiako kaia* eta *Victoria Estudioa*.

Aipatzeagatik esango dut 1920 eta 1925eko Erakusketetan Landi Sorondo Billabonako bezala azaltzen zela, eta hortik ateratzen da, beraz, bali-tekeela urte horietan amaren aldeko familiakoen etxean bizi izatea, bai baitakigu ama Billabonakoa zuela.

Oraindik gehixeago luzatu behar dut aipamen horietan, Hondarribian 1925. urtean ospatu ziren Euskal Jaietara hurbiltzeko, eta hala *Euskalerrriaren alde* aldizkariko XV. tomotik hartuko dut aipamen hau:

Arte Ederretako Erakusketa

Arte Ederretako erakusketa hau izan da Hondarribiko Udalak Jai hauetako ospakizunen inguruan egin duen gauzarik ederrena. Txalotzekoa da, eta txalo egiten diogu, azken orduko denbora-estuasun guztien gainetik hainbesteko obra-kopurua biltzeko egin duen ahalegina, artista izen handikoen obra eta artista hasiberriena, oraindik beren karreraren hasiera borrokatzen ari direnena.

Erakusleen artean azaltzen dira Zuloaga, Pablo Uranga, Ricardo Baroja, Montes Iturrioz, Kaperotxipi, Ramon Zubiaurre, Gustavo de Maeztu, Daniel Vázquez Díaz, Landi Sorondo eta abar luze bat.

Baina Tolosa barruko hesietara etorriko gara berriro.

4. Ibídem.

Kartelismoari buruzko hainbat argitalpenetan, adibidez Rafael Aguirrerren *Carteles de Guipuzkoa* izenekoan, Carlos Landi Sorondoren obra azaltzen da. Orain berriro eta Jose Maria Tuduri Esnal-en meritu handiko lanari esker, Tolosako Aranburu Jauregian erakusketa eder bat ikusi ahal izan dugu, *Gipuzkoako Kartelgintza, 1928-1948. Cartelismo Guipuzcoano, 1928-1948* izenekoa, eta nabarmenki jaso eta azaldu dira Landi eta herriko Laborde eta Labayen Grafikak enpresa.


Erakusketa horren katalogoan⁵ eta *Urrezko Garaiko Kartelgintza* titularekin Maya Aguirianok honako hitz hauek jasotzen ditu:

Pintore-kartelgile jarduketa bikoitz honetako adibiderik gailenena Aurelio Artetak asmatutako kartelean ikusten da, *Donostiako traineru-estropadak* gaiarekin egin zuen horretan. Jesus Basiano eta Carlos Landi ere elkarrekin lan eginez aritu ziren Iruñeako 1929ko *San Fermin Festak eta Feriak* izenekoan.

Eta aurrerago, berriro dio:

Jai-ospakizunen gaia, gainera, aitzekia ezin hobea izan liteke pinturan neke-zago landu daitekeen askatasun formalak eta konposizioak erabiltzeko. Carlos Landik halaxe erabili zituen 1928ko *Euskal Aste Nagusia* izeneko kartelean, konposizio osoa xarma izugarriarekin osatuz. Errotulazioak berak ere dantza-eritmo bizia du, arina eta konpas betekoa

Hemen, ordea, ezin hasiko naiz orain esku artean daukagun esparru honetan autoritate handiko izenak diren horien iritziak jasotzen. Besterik gabe esango dut Carlos Landi Sorondo izen handiko pintore-kartelgilea izan zela gure artean, obra lilurakor eder baten egilea, bere barneko mezuan murgilaraziz poesiaz betetako biziberritze historiko baten xendatik eramaten gaituena.



Carlos Landi: Tolosaldeko oroi-girotan = Carlos Landi: Evocación tolosana / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Carlos Landi Sorondo (1896-1974)*. - Donostia : Kutxa Fundazioa, 1998. - 207 p. : il. ; 30 cm. - P 41-52.

5. *Gipuzkoako Kartelgintza. 1928-1948. Cartelismo Guipuzcoano. 1928-1948*. 3. orr.